**IRAGARKIA, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren Gipuzkoako lurralde ordezkariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira Villabona, Andoain, Urnieta eta Hernani (Gipuzkoa) udalerrietako «Hernani I-II kluster eolikoa» eta haren ebakuazio-azpiegitura erkideak izeneko proiektuaren aurretiazko administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskariak.**

115/2002 Dekretuaren 7. artikuluan (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena) eta 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa) ezarritako ondorioetarako, eta bat etorriz Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin, jendaurrean jartzen dira Hernani I-II kluster eolikoari eta hari lotutako azpiegiturei buruzko proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterlana.

Esp.: 20-GE-Y-2025-00004.

– «Hernani I-II kluster eolikoa», honetan datzana:

- "Hernani I" eta "Hernani II" bi (2) parke eolikoek osatutako kluster eolikoa. Parke horietako bakoitzak 4,99 MW-ko potentzia instalatua du, Siemens Gamesa 145-5.0 Mk II modeloko aerosorgailuekin, 127,50 metroko ardatz-altuera eta 145 metroko errotore-diametroa dutenak, Villabonako udalerrian (Gipuzkoa) kokatuak.
- 30 kV-ko sekzionamendu-zentroa, Villabona udalerrian (Gipuzkoa).
- 30 kV-ko linea elektrikoa, sekzionamendu-zentroa eta ST Hernani T2 30.000 azpiestazioa lotuko dituena; horren luzera 11,509 km-koa izango da. Villabona, Andoain, Urnieta eta Hernani udalerrietako lursailetatik pasatuko dena (Gipuzkoa). 1. tartea: 2,290 km-ko luzerakoa,

**ANUNCIO del delegado territorial del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad de Gipuzkoa, por el que se someten a información pública las solicitudes de Autorización Administrativa Previa y Declaración de Impacto Ambiental del proyecto «Clúster Eólico Hernani I-II» y sus infraestructuras comunes de evacuación, en los términos municipales de Villabona, Andoain, Urnieta y Hernani (Gipuzkoa).**

A los efectos previstos en el artículo 7 del Decreto 115/2002, de 28 de mayo, por el que se regula el procedimiento para la autorización de las instalaciones de producción de energía eléctrica a partir de la energía eólica, a través de Parques Eólicos, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en el artículo 53.1 de la Ley 24/2013, de 26 de diciembre, del Sector Eléctrico; en concordancia con la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, y la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, se someten a información pública el proyecto y el estudio de impacto ambiental correspondientes al Clúster Eólico Hernani I-II, así como sus infraestructuras asociadas.

Exp.: 20-GE-Y-2025-00004.

– Proyecto «Clúster Eólico Hernani I-II», consistente en:

- Clúster eólico formado por los dos (2) parques eólicos “Hernani I” y “Hernani II”. Cada uno de estos parques cuenta con una potencia instalada de 4,99 MW con aerogeneradores modelo Siemens Gamesa 145-5.0 Mk II, que tiene una altura de buje de 127,50 metros y un diámetro de rotor de 145 metros, ubicados en el término municipal de Villabona (Gipuzkoa).
- Centro de Seccionamiento 30kV, ubicado en el término municipal de Villabona (Gipuzkoa).
- Línea aéreo-subterránea 30 kV de 11,509 km de longitud, para la conexión del centro de seccionamiento y la subestación ST Hernani T2 30.000, que discurre por terrenos de los términos municipales de Villabona, Andoain, Urnieta y Hernani (Gipuzkoa). Tramo 1: Tramo

Dokumentu honen benetakotasuna J0D0Z-T8KKY-5P3V lokalizatzailearen bidez egiaztatu daiteke Egoitza elektronikoan: https://euskadi.eus/lokalizatzailea
Se puede contrastar la autenticidad de este documento mediante el localizador J0D0Z-T8KKY-5P3V en la Sede electrónica: https://euskadi.eus/localizador

EASO, 10 - 20006 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tef. 943 02 25 00 - Fax 943 02 25 42

lurpetik. 2. tartea: 8,273 km-ko luzerakoa, airetik. 3. tartea: 0,946 km-ko luzerakoa, lurpetik.

– Xedea: energia elektrikoa sortzea lehorreko teknologia eoliko berriztagarriaren bidez.

– Eskatzailea: PREMIER ESPF RENOVABLES, S.L.

– Titularrak eta sustatzaileak:

- “PE Hernani I”, PREMIER ESPF IPAZ HAIZEA, S.L.
- “PE Hernani II”, PREMIER ESPF IPAZ HAIZEA 2, S.L.

– Eskariaren xedea: Aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

– Tartean dauden udal-mugarteak: Villabona, Andoain, Urnieta eta Hernani (Gipuzkoa).

– Banaketa-sarera husteko puntua: «ST Hernani T2 30.000» azpiestazioa, i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU-rena.

– Parke eolikoaren eta ebakuazio-linearen aurrekontua: 9.760.493,05 euro.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak eman behar dio proiektu honi aurretiazko administrazio-baimena. Jendaurrean erakusteko izapidea bete behar du baimen horrek, dena den, ingurumen-inpaktuaren azterketarekin batera, horrela ezartzen baita Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek dokumentazioa azter dezaten Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Easo kalea 10, 20006 Donostia) edo Interneteko webgunean: https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/.

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira idatzizko euskarri fisikoan edo EAEko Administrazio Publikoaren erregistro elektroniko orokorraren bidez (https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan xedatutako moduan,

subterráneo con longitud de 2,290 km. Tramo 2: Tramo aéreo con longitud de 8,273 km. Tramo 3: Tramo subterráneo con longitud de 0,946 km.

– Finalidad: generación de energía eléctrica mediante tecnología renovable eólica en tierra.

– Solicitante: PREMIER ESPF RENOVABLES, S.L.

– Titulares y promotores:

- “PE Hernani I”, PREMIER ESPF IPAZ HAIZEA, S.L.
- “PE Hernani II”, PREMIER ESPF IPAZ HAIZEA 2, S.L.

– Objeto de la solicitud: Autorización administrativa previa y declaración de impacto ambiental.

– Términos municipales afectados: Villabona, Andoain, Urnieta y Hernani (Gipuzkoa).

– Punto de evacuación a la red de distribución: Subestación «ST Hernani T2 30.000» propiedad de i-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.

– Presupuesto parque eólico y línea evacuación: 9.760.493,05 euros.

La autorización administrativa previa del presente proyecto es competencia de la Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, estando sometida al trámite de información pública, realizándose de forma conjunta con la información pública del estudio de impacto ambiental, conforme al artículo 36 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental.

Lo que se hace público para que las personas interesadas y la ciudadanía en general puedan examinar la documentación correspondiente en la Delegación Territorial de Gipuzkoa (sita en la calle Easo, 10 - 20006 de San Sebastián) o en la siguiente página web: https://www.euskadi.eus/informacion-publica-de-proyectos-sobre-minas-y-energia/web01-a2energi/es/.

Ante la Delegación Territorial de Gipuzkoa, se podrán presentar, bien en soporte físico por escrito, en el registro general de la misma, o bien a través del registro electrónico general de la Administración Pública de la CAE en la siguiente página web: https://www.euskadi.eus/registro/registro-electronico-general/web01-sede/es/ o en las formas previstas en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de

iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik 30 egun balioduneko epean.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daudela administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidezko harremana izatera, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, aipatutakoek jendaurrean jartzeko izapide honetan egindako alegazioak nahitaez bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira.

Donostia-, 2026ko irailaren 9a.

octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las alegaciones que consideren oportunas en el plazo de 30 días hábiles a partir del siguiente al de la publicación del presente anuncio.

Se advierte que las personas jurídicas, las entidades sin personalidad jurídica y otros sujetos identificados en el artículo 14 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, están obligados a relacionarse por medios electrónicos con las Administraciones Públicas para la realización de cualquier trámite de un procedimiento administrativo. Con tal motivo, las alegaciones formuladas por cualquiera de ellos en este trámite de información pública deben obligatoriamente presentarse por medios electrónicos.

En San Sebastián, a 9 de septiembre de 2026.

Stua. / Fdo.: D. ANTTON ARRIETA INSAUSTI Jn.

**GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARIA**
EL DELEGADO TERRITORIAL DE GIPUZKOA

EASO, 10 - 20006 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tef. 943 02 25 00 - Fax 943 02 25 42